

BBK-EUSKALTZAINDIA

TORIBIO ALTZAGA ANTZERKI SARIA

2008

JOSU DUKATIREN PROPOSAMENA

Antzerki honek hiru pertsonaia nagusi ditu: **Josu Dukati** minbizia daukan ETAko buruzagia, **Antton** ertzainburua, eta **Sara** Anttonen emaztea, lehenago Dukatirekin bizi izan dena.

Ez da, ordea, ohiko amodiozko triangelua, ageri denez.

Ekintza nagusia ertzaintzaren koartel batean gertatzen da eta honen barneko galdeketa gelan. Azken finean herri berean sortutako eta hezitako bi gazteek beren bizitzei errepaso luze bat ematen diete, elkarrizketa luze, etengabe, eta dinamiko baten bitartez. Ekintzen eta hilketen justifikazio eta kritikak elkarrekin aztertzen dituzte.

Aspaldidanik jarraikitzen zion ertzaintzak Dukatiri, eta hau ohartzen da galdeketa askoz lehenago ere gartzelera zezaketela, baina arrazoi bereziengatik heltzen utzi dutela. Azkenean bere burua eta besteak entregatzea erabakitzen du ez baitu ikusten Erakundearen inolako etorkizunik eta bai Euskal Herriaren kalte eta sufrimendu iturburu.

Bi antzezle nagusien arrazoiak eta hitzak estilo zuzen eta elkarrizketa interesgarrien bitartez ematen dira, hala nola atzera begira ixtorio zaharrez osatzen den Euskal Herriko gizartearen isla.

Egitura aldetik, bai eta elkarrizketak eramateko moduagatik eta euskararen menperatzeko eragatik *Josu Dukatiren proposamena* nabarmenki gailendu da aurkeztutako beste sei antzerkien artean.